

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
JARDUERA FISIKOA ETA KIROLAREN
ZIENTZIAK

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

DANTZAREN ERAGINAK DEPRESIOAN

EFFECTS OF DANCE OVER DEPRESSION

GRADU AMAIERAKO LANA

Ikaslea: Irati Artolazabal Martínez

Tutorea: Eneko Fernández Peña

Gasteizen 2021eko maitzaren 20an

Ikasturtea: 2020/2021

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	1
ABSTRACT.....	2
SARRERA.....	3
ZERGATIK ERREBISIO HAU, DEPRESIOAREN HAZKUNDEA AZKEN URTEETAN	4
MARKO TEORIKOA	6
NAHASTE DEPRESIBO MOTAK ETA DIAGNOSTIKOAK	7
DEPRESIOAREN TRATAMENDUAK.....	10
ANTIDEPRESIBO MOTAK	10
PSIKOTERAPIA	12
GARUN ESTIMULAZIO TERAPIAK.....	13
TRATAMENDU ALTERNATIBAK: DANTZA ETA MUGIMENDU PSIKOTERAPIA	15
ZER ARRAZOIRENGATIK LAGUNDU DEZAKE DANTZAK?	15
DEPRESIOA NOLA NEURTU EDO KUANTIFIKATU	17
METODOLOGIA	20
INKLUSIO ETA ESKLUSIO IRIZPIDEAK.....	20
FLUJOGRAMA.....	21
EMAITZAK.....	22
DISKUSIOA.....	30
DISKUSIO OROKORRA	33
OSASUN MENTALAREN PATOLOGIZAZIOARI KRITIKA.....	35
ERREBISIOAREN MUGAK.....	36
ONDORIOAK	36
BIBLIOGRAFIA.....	37
ERANSKINAK.....	43

IRUDIEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

Irudia 1. Depresioaren prebalentzia. Iturria: http://ghdx.healthdata.org/gbd-results-tool	5
Irudia 2. Flujograma.....	21
Taula 1. Errebisioan sartutako artikuluen laburpena.....	23

LABURPENA

Sarrera eta helburuak: Depresioa gure gizartean oso presente dagoen gaixotasun bat da. Azken urteotan depresioaren hazkundera eta eragiten dituen pertsonen kopurua ikusita hau tratatzeko beste era ez farmakologiko batzuk aztertzea eta baloratzea interesgarria da. Horregatik, lan honen helburua dantzak depresioan duen eragina aztertzea da, tratamendu konplementario bezala gomendagarria den ikusteko.

Metodologia: Dialnet, Pubmed eta Web of Science datu baseetan egin zen bilaketa bibliografikoa, “dance”, “movement therapy” eta “depression” hitzekin, eta “AND” eta “OR” operadore booleanoak erabiliz. Azkenik, 21 artikulua izan ziren hautatuak, zeinak guztiak ingelesez idatzita dauden.

Emaitzak: 21 artikulutatik 15ek emaitza esanguratsuak eta positiboak izan dituzte, hau da, dantza programak depresioan onurak eragiten dituela erakutsi dute.

Ondorioak: Aukeratutako bibliografiaren irakurketa eta analisisa eta gero esan daiteke dantza depresioaren tratamendu ez-farmakologiko eta konplementario bezala gomendagarria dela, bai jarduera fisikoa delako eta baita dantzak espezifikoki dituen beste ezaugarri emozional batzuegatik ere. Hala ere, gaiaren inguruan ikerketa gehiago egitea oso interesgarria litzateke, zehaztu ahal izateko nolakoa izango litzatekeen depresiora zuzendutako dantza programa bat eta zer ezaugarri izan beharko litzatekeen.

Hitz gakoak: Dantza eta mugimendu terapia (DMT), depresioa, antidepressiboak, osasun mentala.

ABSTRACT

Introduction and objectives: Depression is a disease that is very present in our society, taking into account the increase in cases of depression and the number of people it affects, it is interesting to investigate different non-pharmacological treatments to treat it. Therefore, the aim of this review is to investigate the effects of dancing on depression, to assess whether it can be recommended as a complementary treatment.

Methodology: Search of scientific articles was made in the databases Dialnet, Pubmed and Web of Science by searching with the words Dance, Movement therapy and Depression and the Boolean operators "AND" and "OR". Final selection consists of 21 articles, all of them written in English.

Results: Out of 21 selected articles, 15 of them have shown significantly positive results, suggesting that dancing is beneficial for the treatment of depression.

Conclusions: After reading and analyzing the selected bibliography, we can conclude that dance is recommended as a complementary and non-pharmacological treatment for depression. Given that it is a physical activity and that it has specific emotional factors that other activities do not have. That said, it would be very interesting to have more research on the subject, to be able to specify how it would have to be a dance program aimed at depression and what elements it would have to have.

Keywords: Dance Movement therapy (DMT), depression, antidepressants, mental health.

SARRERA

Gradu amaierako lan honetan dantzak depresioan dituen eraginak aztertu nahi izan ditut.

Gai hau aukeratzeko hainbat arrazoi dauzkat: lehenik eta behin jarduera fisikoa eta kirolaren munduan dantza ahazturiko eta bazterturiko jarduera dela uste dut, eta merezi du bere tokia izatea eta aintzat hartua izatea. Horretarako honi buruzko informazioa eta ikerketak areagotzea eta praktika honen onurak ezagutaraztea beharrezkoa da.

Baina hortaz gain niretzat pisu handiena duen arrazoa motibazio pertsonala bera da. Betidanik dantzatu izan dut, klaseetan eta baita haietatik kanpo nire kabuz edota lagunekin ere: ospatzeko, ezagutzeko, espresatzeko, barrua askatzeko, jarduera fisikoa egiteko...

Momentu onenetan eta baita gogorrenetan ere dantzak beti izan du lekua nire bizitzan. Terapeutikoa dela iruditu zait askotan, eta nitaz gain nire inguruko hainbat pertsona ikusi ditut dantzak dituen onurez gozaten, dantzaz disfrutatzen eta nola egiten zituzten zorionsu ikusten.

Niretzat dantza sentimenduak ulertzeko, onartzeko eta bilakatzeko modu bat da, autoestimua igotzen duena, estresa eta antsietatea jaisten dituen eta gainera oso dibertigarria eta osasungarria dena. Arlo sozialean ere aberasgarria izan daitekeela sinisten dut, komunitate baten parte sentiarazten duen jarduera bat delako, jendea ezagutzea eta haiekin konektatzea ahalbidetzen duena. Gainera lehiaketako dantza kenduta ez da arlo konpetitibo bat, dantzan askotan ez dago ondo edo gaizki, eta hau norbere burua onartzeko oso positiboa izan daiteke.

Osasun mentalarekiko interesa eta kezka ere bada pizgarri pertsonal bat niretzat, mota honetako gaixotasunak eta haien artean depresioa pairatu duten edo pairatzen ari diren hainbat pertsona ditudalako nire ondoan, eta osasunaren esparru hau oraindik oso abandonatuta eta estigmatizatuta dagoela uste dut. Orain inoiz baino gehiago garrantzia eman behar zaio osasun mentalari, gizarte gaixo batean bizi garelako.

Gaiaren inguruko nire hipotesia da dantzak onurak eta hobekuntzak eskainiko dizkiola depresioa duen populazioari, betiere programa eta baldintza egokiak jarraituz gero.

Laburbilduz, dantzak arlo ezberdinetan dituen onura guztiak ikusita ea depresioa bezalako gaixotasun batean onurak dituen aztertu nahi izan dut, albo tratamendu edo jarduera

konplementario lagungarri bat bezala funtzionatu dezakeela sinisten dudalako. Horretarako hainbat datu baseetan gaiari buruzko artikuluak irakurri eta ondorioak bilatu nahi izan ditut.

ZERGATIK ERREBISIO HAU, DEPRESIOAREN HAZKUNDEA AZKEN URTEETAN

Osasunaren mundu erakundearen arabera gaur egun 300 milioi pertsonak depresioa pairatzen dutela kalkulatu da eta gaixotasunaren prebalentzia %23koa dela. Depresioak kasu okerrean suizidiora eraman dezake, urtero 800 000 pertsona inguru hiltzen dira suizidioaren bitartez. Izan ere, hau da 15-29 urteen bitartean bigarren heriotz kausa handiena (OMS, 2020).

Gainera esponentzialki gora egiten ari den datua da; OMEren arabera 2010 urtean 121 milioi pertsonak pairatzen zuten gaixotasuna eta 2012rako 350 milioi pertsonara igo zen. Hau oso zifra altua da eta urtez-urte gorantz doa, gainera gaur egungo egoerak eraginda (Covid 19-aren pandemia) horrelako kasuak etengabe igotzen ari dira (Salari et al., 2020).

Genero ikuspegitik depresioaren prebalentzia askoz ere altuagoa da emakumezkoetan gizonezkoekin alderatuta. Beheko irudian ikusten den bezala depresioa pairatzen duten emakumeen ehunekoa proportzionalki askoz ere handiagoa da gizonezkoena baino, eta bi generoen kasuetan gorantz egin du zifrak azken urteotan.


Depresioan, beste faktoreez gain, egestura sozial konplexuek eragin asko dute, eta gizarte egoera edo problematika batzuk emakumeek pairatzen dituzte gehienbat: diskriminazio laborala, familiar erantzukizun handiagoa, zaintza lanak eta biolentzia sexuala adibidez. Patriarkatua eta kapitalismoa bezalako egitura sozialek eragin handia dute emakumeenganako errepresioan, eta bide beretik, depresioa eragitean (Brandt, 2001).

Beraz, esan dezakegu depresioaren datuak ikusita gizarte arazo larri bat dela, egungo populazioaren osasun mentalaren egoera kezkatzekoa dela, eta beraz, jende asko eragiten duenez beharrezkoa dela pairatzen duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lan egitea eta ikertzea.

Number of people with depression, World, 1990 to 2017

Total number of people of all ages with depression, differentiated by sex. Figures attempt to provide a true estimate (going beyond reported diagnosis) of the number of people with depression based on medical, epidemiological data, surveys and meta-regression modelling.

Our World
in Data



Source: IHME, Global Burden of Disease

CC BY

Irudia 1. Depresioaren prebalentzia. Iturria: <http://ghdx.healthdata.org/gbd-results-tool>

MARKO TEORIKOA

Gaiarekin hasteko depresioaren inguruko marko teoriko bat osatu dut. Depresioa zer den ulertzeko, zerk eragin dezakeen, zer sintoma dituen eta zeintzuk diren erabiltzen diren tratamenduak argi edukitzeko.

Depresioa gaixotasun mediku larri bat da, pertsona baten sentimenduetan, pentsatzeko eran eta jokatzeko eran negatiboki eragiten duena. Kasurik okerreanean suizidioan buka daiteke. Hainbat depresio mota eta maila ezberdin daude, moderatutik sakonera doazenak.

Sintomei dagokionez Amerikako asoziazio psikiatrikoaren arabera hauek dira aipagarrienak: apatia, lehen gustukoak ziren jardueretan interes galera, apetituan aldaketak, lo egiteko arazoak edo gehiegi lo egitea, energia galera edo etengabeko nekea, errudun eta baliogabe sentitzea, kontzentratzeko eta erabakiak hartzeko arazoak izatea eta heriotza edo suizidioari buruzko pentsamenduak izatea (Felix Torres, 2020) .

Depresioa hainbat egoerak bultzatu dezakete Amerikako antsietate eta depresioaren asoziazioaren arabera. Adibidez, maite dugun norbait galtzeak, dibortzio bat pasatzeak eta abar. Normalean gertakari hauen ondoren goibel sentitzea normala da, baina depresioa duen pertsona batek sufritzen dituen ondorioak larriagoak izaten dira eta denbora luzez iraun ohi dute, sentimenduak maneiatzeko zailtasunak izaten dituztelako (Anxiety disorders and depression research & treatment.).

Depresioa izateko arrisku faktoreak edo kausetako batzuk ondorengoak izan daitezke: depresioarekiko historia pertsonala edo familia historia, bizi aldaketa sakonak, trauma edo estresa, gaixotasun fisiko edo medikazio batzuk (National Institute of Mental Health, 2018).

Biokimikaren aldetik garunean kimiko jakin batzuen aldaketek depresio sintomak izatera bultzatu dezakete. Depresioan inplikaturako neurotransmisoreak dopamina, serotonina eta norepinefrina dira gehienbat.

Dopaminak jarduerekin jarraitzeko motibazioa ematen diguten sentimendu positiboak sortzen ditu, eta depresioa duten pertsonak dopamina maila baxuagoak izaten dituzte.

Serotoninak ongizate sentimendua ematen du eta aldartearen erregulatzen laguntzen du. Medikamentu antidepressibo batzuek zuzenean serotonina molekuletan dute eragina. Edozein depresio kasutan garuneko serotonina mailak ohikoak baino baxuagoak dira.

Norepinefrina neurotransmisore bat izateaz gain hormona bat ere bada. Adrenalinarekin batera aritzen da eta arriskuen aurrean zer egin erabakitzen laguntzen digun mekanismoan hartzen du parte (Tank & Lee Wong, 2015).

Genetikak ere eragin handia du depresioan, familian depresio kasuren bat egon bada gaixotasun hau izateko probabilitatea areagotzen da. Hau batez ere amaren aurrekariekin gertatzen da: depresio nagusia pairatzeko arriskua %10 igotzen da (American Psychiatric Association, 2013).

Nortasuna eta bakoitzaren izateko era ere oso determinantea izan daiteke depresio bat izaterako orduan. Autoestimu baxua duten pertsonak, estresak asko eragiten dituenak edo pesimistak direnak depresioa izateko joera gehiago dutela ematen du.

Azkenik, ingurumen faktoreek ere oso paper garrantzitsua jokatzen dute: estresa eragiten duten gertakariak, biolentziaz inguratuta bizitzeak, albo batera utzia edo marjinatua izateak eta pobrezian bizitzeak ere depresioarekiko joera areagotzen dute (American psychiatric association).

NAHASTE DEPRESIBO MOTAK ETA DIAGNOSTIKOAK

Nahasmendu afektiboaren edo aldartearen nahasteen barruan sailkatzen dira nahaste depresiboak, nahaste bipolarra eta nahaste ziklotimikoarekin bat (Bonnie, Appelbaum, & Pinals, 2015).

Nahaste depresiboen barruan diagnostiko ezberdinak daude: nahaste depresibo nagusia, nahaste depresibo iraunkorra, hilerokoaren aurreko nahaste distrofikoa eta aldartearen desregulazio disruptiboaren nahastea (American Psychiatric Association, 2013).

Depresio nagusia

Hurrengo sintometako bost gutxienez presente egon behar dira bi astez: Egun guztian zehar deprimitutako aldartea, jarduerengatik interes edo gogo falta, dietarik egin gabe pisu galera edo pisuaren igoera nabarmenak, lo egiteko ezintasuna edo gehiegizko logura, atzerapen edo agitazio psikomotorra, energia falta eta nekea, errudun denaren sentimendua, kontzentratzeko, pentsatzeko eta erabakiak hartzeko zailtasunak, heriotzarekin erlazonatutako pentsamenduak edo ideia suizidak. Sintoma hauek ezinegona eta arazoak sortzen dituzte arlo

sozialean, laborean eta baita beste esparru garrantzitsuetan ere (American Psychiatric Association, 2013).

Epidemiologia: Gaixotasun mentaletan prebalentzia handiena duena da, emakumezkoetan gehiago (%26) gizonezkoetan baino (%12). Adinari dagokionez arrisku gehiena 20-45 urteen artean dago, eta zahartzaroan berriro gora egiten du. Pertsona nagusietan nahasmendu psikiatrikoetatik prebalenteena da, bereziki zahar egoitzetan daudenen artean (American Psychiatric Association, 2013).

Ospitalizazioa depresio nagusian: Normalean pazienteak haien kabuz maneiatzeko gai dira, baina badaude egoera batzuk ospitalizaziora bultzatu dezaketenak: suizidio arrisku altua, elikaduran edo hidratazioan defizita edo maneiu autonomorako zailtasunak (komorbilitateak, familia arazoak edo sintoma askoren presentzia dagoenean adibidez). (American Psychiatric Association, 2013).

Nahasmendu depresibo iraunkorra (distimia)

Bi urte baino gehiagoko iraupena duen nahasmendu depresiboa da, bere prebalentzia %3koa da eta emakumezkoetan gehiago ematen da. 20 urteren inguruan hasi ohi da (American Psychiatric Association, 2013).

Hilerokoaren aurreko nahaste distrofikoa

Nahasmendu depresibo hau menarkia ondoren agertzen da eta menopausia arte irauten du, bere prebalentzia %1'8-5 ingurukoa da. Normalean sintoma fisikoetan ere agertzen da (energia baxua, gasak, zefaleak, lunbalgiak, bularrak sentsible izatea...) (American Psychiatric Association, 2013).

Aldartearen desregulazio disruptiboaren nahasmendua (DMDD)

Nahaste depresibo hau haurretan eta nerabeetan da ohikoagoa, bere prebalentzia %1ekoa da eta diagnostikoa ez da 6 urteak baino lehen edo 18 urteak baino beranduago egin behar, diagnosiko gehien ematen diren adina 10 urteetan da.

Gaixotasun hau pairatzen duten pertsonek haserrealdi larriak izaten dituzte, eta haien intentsitatea ez dator bat egoeraren edo eragilearen graduarekin. Gertakari hauek astean hirutan edo gehiagotan gertatzen dira. Pasarte bat eta hurrengoaren artean pertsonak duen aldartea suminkorra da, egunaren zati handi batean, eta ia egunero. Hau lagunek, irakasleek eta gurasoek ikus dezakete. Sintoma hauek presente egoten dira 12 hilabete edo gehiagoz, eta ez

dira hiru hilabete baina gehiago igarotzen sintomarik gabeko periodo batean (American Psychiatric Association, 2013).

Horrelako pasarteak gutxienez hirutik bi kontestutan daude presente (etxean, eskolan edo lagunekin). Portaera hauek ez dira esklusiboki depresio nagusi pasarte batean zehar jazotzen, eta sintomak ezin dira substantzia edo beste afekzio mediku edo neurologiko batekin lotu (American Psychiatric Association, 2013).

DEPRESIOAREN TRATAMENDUAK

Tratamenduari dagokionez ohikoena medikazioa, psikoterapia edo bien konbinazio bat izaten da (National Institute of Mental Health, 2018).

Depresioa tratatzeko erabiltzen den medikazioa antidepresiboak dira, garunak emozioak edo estresa kontrolatzeko erabiltzen dituen kimikoak kontrolatzen laguntzen dute, normalean antidepresibo ezberdin asko probatzen dira paziente bakoitzarentzat egokia dena aurkitu arte.

Antidepresiboek eragina egiten hasteko 2-4 aste inguruan itxaron behar da eta albo kalteak izaten dituzte.

ANTIDEPRESIBO MOTAK

Hiru motatako antidepresiboak daude: triziklikoak, serotonina bir-hartzearen hautatzaile inhibitzaileak (ISRS) eta serotonina eta noradrenalina bir-hartzearen inhibitzaile dualak (IRSN).

Antidepresibo triziklikoek noradrenalina eta serotonina neurotransmisoreen bir-hartzea inhibititu edo blokeatzen dute. Honen adibide da Clormipramina medikamentua.

Serotonina bir-hartzearen hautatzaile inhibitzaileek serotoninaren baloreak igotzen dituzte, beste neurotransmisoreetan eraginik egin gabe, mota honetako medikamentuak dira adibidez geroago aztertutako Fluoxetina eta Escitalopram.

Azkenik, serotonina eta noradrenalina bir-hartzearen inhibitzaile dualak daude, Duloxetina esate baterako.

Albo kalte batzuk aztertzeko sarritan errezetatu ohi diren bi antidepresiboren prospektuetan agertutako albo kalteak begiratu ditut, kasu honetan serotonina bir-hartzearen hautatzaile inhibitzaileen motakoak biak.

Escitalopram Qualigen-en albo kalteak medikamentuaren prospektuaren arabera:

- Pentsamendu suizidak edo nork bere burua zauritzekoak areagotu lehenengo aldietan.
- Zorabioa eta goragalea.
- Sinusitisa edo sudur zuloen ixtea.
- Apetituan aldaketak.
- Pisia irabaztea.

- Antsietatea, amets anormalak, lo hartzeko zailtasunak, logura sentitzea, dardarak, azaleko azkura.

- Beherakoa, idorria, botaka egitea, ahoko lehortasuna.
- Izerdia areagotzea.
- Min muskular eta articularra (mialgia eta artralgia).
- Alterazio sexualak (eiakulazioaren atzeratzea, erektioarekin arazoak, jokabide sexualaren gutxitzea eta emakumeek orgasmora heltzeko zailtasunak izan ditzakete).

- Nekea eta sukarra.

Escitalopram-aren antzeko eran funtzionatzen duten medikamentuetan beste albo kalte batzuk ezagutzen dira: anorexia eta ezinegon motorra (akatisia)

Fluoxetina cinfa-ren albo kalteak prospektuaren arabera:

- Sindrome serotoninergikoa: sintomen konbinazioa: jatorri ezezaguneko sukarra, arnasaren igoera eta bihotzeko erritmoa azeleratu, izerdiak, zurruntasun muskularra, konfusioa, agitazioa eta logura.

- Ahultasun sententzioa, nekea eta nahasmendu sententzioa, batez ere adin nagusiko pertsonetan.

- Erektio mingarria eta luzea.
- Sumindura eta asaldura.
- Bihotzeko arazoak, bihotz erritmo azkarra edo irregularra eta zutik jartzean zorabioak.

Oso ohikoak direnak:

- Insomnioa.
- Buruko mina.
- Beherakoa eta goragalea.
- Nekea.

Ohikoak:

- Apetitu falta eta pisu galera.
- Urduritasuna eta antsietatea.
- Ezinegona eta kontzentrazio falta.

- Tentsioan sentitzea.
- Sexu desira gutxitzea edo harreman sexualetan zehar erektzioa mantentzeko zailtasunak.
 - Loaren nahasteak, logura eta amets arraroak.
 - Zorabioak.
 - Dastamenaren alterazioa.
 - Dardara kontrolaezinak eta hotzikarak.
 - Ikusmen lausoa.
 - Beroaldiak.
 - Indigestioa eta botagura.
 - Aho lehorra.
 - Azaleko erupzioa, urtikaria, hazkureak.
 - Gehiegizko izerditzea.
 - Giltzaduretako mina.
 - Gernu egitearen gehikuntza.
 - Esplikaziorik gabeko odol-jario baginala.

Albo kalte hauek ikusi eta gero ondoriozta dezakegu antidepresiboak hartzen egotea ez dela batere erraza, eta sortzen dituen albo kalteak ez direla batere erosoak, beraz kasu askotan pentsatu behar da ea sortzen duen onurak eragiten duen kaltea orekatu edo konpentsatzen duten (MIAH, 2016). Gainera antidepresiboak hartzean garunak izan ditzakeen erantzunen artean era egokian ez onartzea dago, eta honek birgaixotze bat eragin lezake (Andrews, Kornstein, Halberstadt, Gardner, & Neale, 2011).

Hala ere, depresiorako errezetatzen den medikazioaren auzia da medikazioak berak bakarrik ez duela arazoa konpontzen, baina bide bat da psikoterapiari sentiberagoa izateko eta hau eraginkorragoa izateko. Bien arteko konbinazio orekatsua bilatu behar da eta bata bestearen mesederako lan egin behar du. (Asafes hitzez emandako informazioa).

PSIKOTERAPIA

Psikoterapiari dagokionez, terapia mota askok lagundu dezakete, adibidez terapia kognitibo-konduktuala, terapia interpersonala eta arazo-ebazte terapiak.

Terapia teknika hauen helburua pertsonak arazoak sor ditzaketen portaera, pentsamendu eta emozioak identifikatzea eta aldatzen ikastea da. Terapia mota eta korrante ezberdin asko daude, psikoterapeutek terapia mota bakar bat erabili dezakete edo haien saioetan terapia mota ezberdinetako elementuak integratu. Terapiak honako elementuak izaten dituzte: pertsonari ikusarazi era automatikoak dituen pentsamendu batzuk berarentzat kaltegarriak eta mingarriak izan daitezkeela, estresari aurre egiteko moduak erakutsi, pertsonak besteekin dituen interakzio sozialak aztertu eta era egokian sozializatu eta komunikatzeko erramintak eman, erlaxazio teknikak erakutsi eta krisialdi baten aurrean ohartarazpen seinaleak identifikatu eta egoerari aurre egiteko estrategiak jakin: adibidez familia, lagun edo larrialdi zerbitzuekin kontaktuan jartzea (National Institute of Mental Health, 2018).

Tratamendu psikologikoak honako elementuak izan behar ditu:

Laguntza emozionala emateko sentimenduak identifikatzen eta espresatzen lagundu behar du profesionalak, depresioak eragiten duen momentuetan erabaki garrantzitsuak hartzea saihestu eta pazientearekin onarpen eta enpatia jarrera bat mantendu (Listado intervenciones NIC - temas de enfermería.2013).

Esperantza izateko arrazoiak identifikatzen lagundu eta momentuko egoera ez dela bizitza osoan zehar mantenduko azpimarratu behar da, horretaz gain helburu zerrenda bat ezartzeak ere lagundu dezake (errazenetik zailenera).

Berrezartze kognitiboari dagokionez pentsamendu negatiboak moldatzen edo aldatzen lagundu eta errealista izaten irakatsi behar zaio pazienteari.

Autoestimua indartzea ere oso puntu garrantzitsua da, honetarako indarguneak ezagutarazi, autonomia indartu, kritikak ekidin eta lorpenen errefortzu positiboak egingo ditu psikoterapeutak, hau guztia kontaktu fisikoa eta entzute aktiboaz baliatuz.

GARUN ESTIMULAZIO TERAPIAK

Medikamentuek ez badituzte depresioaren sintomak gutxiagotzen eta pazientea oso grabe baldin badago terapia elektrokonbultsiboa beste aukera bat izan daiteke. Azken ikerketen arabera terapia elektrokonbultsiboak beste tratamenduekin hobekuntza nabaritu ez duten pazienteei arintasuna ematen die, depresiorako tratamendu eraginkor bat izan daiteke zenbait kasu larrietan, non erantzun azkarra beharrezkoa den eta medikazioa ezin den era seguruan

erabili. Terapia mota hau lehen mailako interbentzioa izan daiteke. Hala ere oso kasu gutxitan erabiltzen da.

Ospitalizatuta dauden pazienteekin zein ez daudenekin erabili daiteke, normalean astean hiru sesio egiten dira, bi edo lau asteko iraupenarekin. Sor ditzakeen albo kalteak hurrengoak dira: nahasmendua, desorientazioa eta memoria galtzea. Normalean epe laburrekoak izaten dira baina batzuetan luzatu daitezke, tratamenduak irauten duen bitartean.

Azkenik, terapia ez da mingarria eta inpulso elektrikoak ez dira antzematen, hasi baino lehen pazienteari anestesia eta muskulu erlaxatzaile bat jartzen zaio.

TRATAMENDU ALTERNATIBAK: DANTZA ETA MUGIMENDU PSIKOTERAPIA

Dantza eta mugimendu terapiaren erakunde Europearrak DMT indibiduoaren integrazio soziala, espirituala, fisikoa, kognitiboa eta emozionala areagotzeko mugimenduaren erabilera terapeutikoa bezala definitzen du.

Dantza eta mugimendu terapia bikotean, bakarka, taldeka edo familian egin daiteke, adin eta genero guztientzako egokia da eta mota ezberdineko zailtasunak dituzten pertsonen egokituta dago, hau da, jarduera inklusiboa da.

Komunikazio edo informazioa prozesatzeko zailtasunak dituzten pertsonak, trauma edo galera batekin pairatzen ari direnak, depresioa, elikadura nahasteak, psikosia, abusuak, adikzioak eta antsietatea bezalako arazoei aurre egiten ari direnei laguntzea da terapia mota honek dituen helburuetariko bat.

Hau pertsonak komunikatzeko duen gaitasuna, auto esplorazioa eta norberaren sentimenduekiko ulermena mugimendua eta espresioaren bitartez landuz egiten da (What is dance movement psychotherapy?).

ZER ARRAZOIRENGATIK LAGUNDU DEZAKE DANTZAK?

Dantzak depresioan lagundu dezakeela da lan honen hipotesia, hainbat arrazoik eragindako hipotesia da hau:

Hasteko dantza jarduera fisikoa da, eta jakina den bezala jarduera fisikoak depresioa eta antsietatea jaisten laguntzen du (Gujral, Aizenstein, Reynolds, Butters, & Erickson, 2017). Jarduera fisikoak efektu antidepressiboak ditu serotonina mailak igotzen dituelako, eta kortisola (estresa eragiten duena) jaisten duelako (aan het Rot, Collins, & Fitterling, 2009). Baina horretaz gain dantzak baditu beste ezaugarri batzuk beste kirol praktika batzuek ez dituztenak. Jarduera artistikoa da jarduera fisikoa izateaz gain, espresibitatera bultzatzen du eta harreman sozialak sortzeko giro aproposa eta lehiaketarik gabekoa sortzen du; beste ezaugarri batzuen artean.

Gainera dantzak aukera eta konbinazio pila bat eskaintzen ditu, taldeka, bakarka edo bikoteka dantzatu daiteke, sentimendu eta sentsazio ezberdinak bilatzen dituzten musika eta

mugimenduekin, koreografia bat ikasi daiteke, irakasleak emandako pautak jarraituz inprobisatu daiteke edo guztiz inprobisatu ere. Aukera pila bat daude eta bilatzen dugunaren arabera ezaugarri batzuk edo besteak hautatuko ditugu.

Gorputz pertzepzioak, sententzioak gorputzera eramanda nola sentitzen diren konturatzeko laguntzen du, bide honetatik, mugimendu inprobisazioak espazio fisiko segurua bat eskaintzen du haserrea edo beldurra bezalako emozio gogor eta konplikatuak espresatzeko. (Punkanen, Saarikallio, & Luck, 2014) Terapia edo jarduerak honen bidez beste era batera onartzeko edo espresatzeko zailak diren sentimenduak onartzen edo hautematen ikas dezakegu.

DEPRESIOA NOLA NEURTU EDO KUANTIFIKATU

Depresioa neurtzeko tresnak: (Depression assessment instruments.2019).

Depresioa neurtzeko gehien erabili ohi den tresna galdetegiak izan ohi dira, merkeak dira, egiteko azkarrak eta errazak. Laborategian hormonak neurtzeko aukera ere badago baina ez da hainbeste erabiltzen, zailagoa bait da horrelako baliabideak erabiltzeko aukera izatea.

Galdetegien bitartez egindako neurketak hainbat abantaila eta desabantaila izan ditzake:

Abantaileri dagokionez egiteko errazak dira, ez dute aparteko kosturik, normalean nahiko azkar betetzen dira, ez dira emaitzak denbora luzez itxaron behar eta pazientearentzat ulerterrazak dira.

Desabantailei dagokionez, pertsona guztiek ez dituzte irizpideak berdin ulertuko, azken finean sentimenduak zerbait subjektiboa dira eta pertsona batetik bestera oso aldakorak, metodo honi objetibotasuna eta zehaztasuna falta zaio.

Hauek dira Amerikako Asoziazio Psikologikoak (American Psychological Association, APA) aitortzen dituen galdetegiak:

- Beck Depression Inventory (BDI)
- Center for Epidemiologic Studies Depression Scale (CES-D)
- EQ-5D
- Hamilton Depression Rating Scale (HAM-D)
- Montgomery-Åsberg Depression Rating Scale (MADRS)
- Social Problem-Solving Inventory-Revised (SPSI-RTM)

Haur eta nerabeetan:

- Behavior Assessment System for Children (BASC)
- Child Behavior Checklist (CBCL)
- Children's Depression Inventory (CDI)
- Children's Depression Rating Scale (CDRS)

Populazio heldua orokorrean:

- Beck Hopelessness Scale

- Quick Inventory of Depressive Symptomatology-Self-Report (QIDS-SR)
- Patient Health Questionnaire (PHQ-9)
- Reminiscence Functions Scale (RFS)
- Short Form Health Survey (SF-36)
- Social Adjustment Scale-Self Report (SAS-SR)TM
- Social Functioning Questionnaire (SFQ)

Hirugarren adineko populazioa:

- Geriatric Depression Scale (GDS)
- Life Satisfaction Index

Artikuluetan neurketa tresnatzat gehien erabili diren galdetegiak hurrenez hurren Beck Depression Inventory, Geriatric Depression Scale eta Symptoms Check List (SCL-90) dira.

Beck Depression Inventory depresioaren manifestazioak eta haren maila neurtzeko erabiltzen den galdetegi da, 13tik 80 urte artera erabiltzen da, hau da, populazioaren zati oso handi batentzat dago pentsatua. 21 itemeko galdetegi da, erantzun aukera anitzekin. 10 minututan erantzuten da eta bere fidagarritasuna eta baliozkotasuna mundu osoan eta populazio ezberdin askorekin neurtua izan da. Galdetegi hau hizkuntza askotara itzuli da eta hainbat moldaketa ditu, esate baterako (BDI II).

Geriatric Depression Scale 30 itemeko galdetegi da, bai ala ez erantzuneko galderak dituena. Populazio nagusiarentzat dago espezifikoki pentsatuta, eta formatua disfunzio kognitiboa dutenentzat lagungarria da. Indibiduoa denbora tarte espezifikoko batean nola sentitu den galdetzen du eta 5-7 minutu artean erantzun daiteke.

Symptoms Check List 90 itemeko galdetegi bat da, 90 sintoma ditu eta hauen maiztasuna adierazten duten erantzunak daude aukeran (ezer ere ez, oso gutxi, gutxi, nahikoa eta asko) Galdetegi hau balioztatuta dago eta fidagarritasuna erakutsi du (Sereda & Dembitskyi, 2016).

Azkenik, beste era bateko neurketa ikerketa bakar batean erabili da: laborategian egindako hormonen neurketa (Jeong et al., 2005). Bertan plasma serotonina eta dopamina

neurketak egin ziren, biak depresioaren indikatzailak izan daitezkeenak mailak baxuak badira.
Neurketa mota hau ez da artikulu gehiagotan erabili, ziurrenik baliabide faltagatik.

METODOLOGIA

Artikuluak bilatu eta aukeratzeko hurrengo metodologia jarraitu dut: Lehenik eta behin Pubmed, Dialnet eta Web of science datu baseetan (dance OR "movement therapy") AND depression bilaketa egin nuen. Guztira 368 artikulu agertu ziren hiru datu baseetan bilaketa honekin. Tituluak irakurri, abstracta irakurri eta eskusio irizpideen bitartez bazterketa egin eta gero, flujograman (irudia 2) ikusten den bezala, azken aukeraketan 21 artikulu izan ziren hautatuak, denak ingelesez idatziak.

INKLUSIO ETA ESKLUSIO IRIZPIDEAK

Hauek dira artikuluak errebisioan sartzeko edota baztertzeko jarraitu ditudan irizpideak:


Erabilitako datu baseak Pubmed, Dialnet eta Web of science datu baseetakoak dira. Beraz, kanpo geratzen da datu base hauetan agertzen ez den ikerketa oro.

Ikerketetan erabilitako interbentzioa dantza edo mugimendu terapia bat izan beharko da.

Kontrol taldea eta talde esperimentalak egon ezean pre- eta post neurketa bat egon behar da, eta neurketen artean depresioa neurtzen duen tresnaren bat erabili behar da.

Ez dago ez adin, ez genero, arraza, klase sozial, edota patologia aldetik inongo eskusio motarik.

FLUJOGRAMA



Irudia 2. Flujograma

EMAITZAK

Errebisioan aztertu diren 21 artikuluetan guztira 1.253 parte hartzaile daude, hauetatik 905ek osatzen dituzte dantza eta mugimendu interbentzio taldeak eta 348k kontrol taldeak.

21 artikuluetatik gehienek, hain zehazki hamabost artikuluk baieztatzen dute dantza interbentzioek emaitza estatistikoki esanguratsuak eta positiboak izan zituztela depresioa neurtzeko erabili zituzten aldagaietan.

Artikuluetako dantza programak iraupenari dagokionez oso ezberdinak dira, laburrenak 3 asteko iraupena du eta luzeenak hiru hilabetekoa (gehiago dira hiru hilabeteko iraupena dutenak). Programa batzuetan saioak astean behin bakarrik egiten dira eta besteetan hiru edo bosti aldiz. Jarraikortasun honek emaitzetan eragina izan dezake.

Dantza programen izaerari dagokionez denetarik aurkitu dezakegu: balleta, areto dantzak, dantza folklorikoak...beraz emaitzak dantza estiloaren arabera sailkatzea zaila izango da, aukera asko bait dago.

Beste aldetik, sei artikulutan ez zen emaitza esanguratsurik agertu, baina hala ere dantzaren onura psikologikoak nabarmentzen dituzte, eta emaitza hauek zergatik ez ziren esanguratsuak izan azaltzeko hainbat arrazoi erakusten dituzte, geroago azalduko ditugunak.

Emaitza esanguratsuak aurkitu ez dituzten artikulua (Prewitt et al., 2017), (Garcia Gouvea et al., 2017; Hackney & Earhart, 2010), (Eyigor et al., 2009), (Haboush et al., 2006) eta (Boing, Baptista et al., 2018a) dira.

Taula 1. Errebisioan sartutako artikuluen laburpena.

Artikulua	Parte hartzaileak	Programa	Neurketa tresna	Emaitzak	Ondorioak
(Anderson, Kennedy, DeWitt, Anderson, & Wamboldt, 2014)	Nerabeentzako ospitale psikiatriko bateko 402 paziente (adina 14-21).	DMT saioak 60-75 minutu.	Fast assessment of children's emotions (FACE)	Unitate psikiatriko guztietan galdetegiak aztertzen dituen emozioetatik gehien aldatu zena haserrea izan zen. Haserrea eta nahasmendua gutxitu ziren.	Datuek erakusten dute dantza eta mugimendu terapiak aldaketak eragiten dituela nerabeen emozioetan. Emozioak identifikatzen laguntzen du.
(Boing, Baptista et al., 2018b)	Bularreko minbizia izan duten 19 emakume: talde esperimentalak (n=8) eta kontrol taldea (n=11).	Sabel dantza ordubeteko 2 saio astean 12 astez.	(BECK's Depression Inventory)	Ez da estatistikoki diferentzia esanguratsurik aurkitu taldeen artean interbentzio aurretik edo gero. Sintoma depresiboetan jaitsiera egon da hala ere.	Ikerketak erakusten duabel dantzak neke eta depresio sintomak gutxiagotu zituela interbentzio taldeko emakumeetan.
(Eyigor, Karapolat, Durmaz, Ibisoglu, & Cakir, 2009)	65 urtetik gorako 37 emakume osasuntsu. Dantza taldea (n=19) Kontrol taldea (n=18)	Ordubete astean hirutan, zortzi astez. Dantza folklorikoak.	Geriatric depression scale (GDS)	Estatistikoki ez zen hobekuntzarik ikusi GDS eskalan.	Ez ziren hobekuntzak aurkitu, izan daiteke hasierako ebaluazioan gehienek ez zutelako depresiorik. Hala ere hitzez espresatu zuten dantzatu eta gero pozik sentitzen zirela.

Artikulua	Parte hartzaileak	Programa	Neurketa tresna	Emaitzak	Ondorioak
(Garcia Gouvea, Antunes, Bortolozzi, Marques, & Marques Gomes Bertolini, Sonia Maria, 2017)	20 pertsona nagusi, (adina 60-89 urte)	45 minutuko 3 klase astean, 3 hilabetez. Guztira 40 saio.	Beck Depression Inventory.	Pre- eta post- testen artean ez dago ezberdintasun esanguratsurik. Depresioaren prebalentzia programa aurretik %50, eta ostean %45.	Emaitzak ez dira esanguratsuak izan, iraupenagatik izan daiteke.
(Gao, Zhang, Qi, & Petridis, 2016a)	Interbentzio taldea (n=26) eta Kontrol taldea (n= 24)	Dantza tradizionalak 60–90 minutuko saioak, 30 minutuero 5 minutuko atsedenaekin. Astean 5 aldiz 3 hilabeteko iraupenaekin.	The Self-rating Depression Scale (SDS)	Interbentzioa eta gero depresio indizeak interbentzio taldean jaitsiera nabarmen bat izan zuen interbentzio aurreko indizearekin konparatuta. Kontrol taldean ez zen aldaketa nabarmenik egon.	Interbentzioan parte hartu zuten emakumeek depresio tasa baxuagoa izan zuten parte hartu ez zutenekin alderatuta. Dantza tradizionalak emakume perimenopausikoen depresio sintomak murriztu ditzake.
(Haboush, Floyd, Caron, LaSota, & Alvarez, 2006)	Depresioa duten 20 pertsona nagusi. Bataz besteko adina= 69 urte.	Dantza saio indibidualak, 45 minutu astean 8 astez.	Hamilton Rating Scale for Depression (HRSD;Hamilton, 1967) Geriatric Depression Scale (GDS).	Estatistikoki ez zen ezberdintasunik aurkitu	Ez zen hobekuntza nabaririk ikusi, hau partehartzaile gutxi zeudelako izan daiteke edo programa ez zegoelako espezifikoki depresioarentzat diseinatuta.

Artikula	Parte hartzaileak	Programa	Neurketa tresna	Emaitzak	Ondorioak
(Hackney & Earhart, 2010)	Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen zentro bateko 9 pertsonak bete zuten programa. 2 pertsonak: depresioa 2: nahaste bipolarra 1: antsietate nahastea 4: eskizofrenia	Salsa ordubete astean behin 10 astez.	Beck Depression Inventory	BDI-n ez zen hobekuntza esanguratsurik egon.	Nahiz eta ez hobekuntza esanguratsurik izan parte hartzaileek saioak disfrutatu zituzten eta humorean hobekuntzak nabaritu zituzten. Emaitzak lagin txikiaren ondorioz izan daitezke.
(Hashimoto, Takabatake, Miyaguchi, Nakanishi, & Naitou, 2015)	Parkinson arina edo moderatua duten 46 pertsona. Dantza taldea (n=15) Parkinsonerako ariketa taldea (n=17) Kontrol taldea (n=14)	60 minutuko saio bat asteko, 12 astez.	The Self-rating Depression Scale (SDS)	Dantza taldeak hobekuntza esanguratsuak erakutsi zituen SDS-n interbentzioa eta gero, abiapuntuarekin alderatuta. Aldiz interbentzioa izan ez zuten taldeek ez zuten hobekuntzarik erakutsi SDS-n.	Efektu nabarmena sintoma mentaletan batez ere.
(Hellem, Sung, Ferguson, & Hildreth, 2020)	(n=53) Depresioa duten emakume, adina 18-70 urte. (n=23) 12 asteak (n=14) 12 asteak + aukerazko 3 hilabeteak.	12 aste: lehenengo 4-ak online egin zitezkeen eta hurrengo 8-ak presentzialki. Hau amaitutakoan 3 hilabetez jarraitzeko aukera.	Hamilton Depression Rating Scale (HAM-D)	Interbentzio amaieran batz besteko HAM-D puntuazioak nabarmenki behera egin zuen.	Ikerketa honen arabera OULA dantza metodoa erabilgarria izan daiteke depresioa duten emakumeen antsietate eta depresioa gutxitzeko.

Artikulua	Parte hartzaileak	Programa	Neurketa tresna	Emaitzak	Ondorioak
(Hyvonen, Pylvanainen, Muotka, & Lappalainen, 2020)	109 parte-hartzaile. Dantza eta mugimendu terapia taldea: (n= 52) Kontrol taldea: (n= 57)	Astean 75 minutuko bi DMT saio 10 astez.	Beck Depression Inventory I Clinical Outcomes in Routine Evaluation— Outcome CORE-OM The Symptoms Check List-90	BDI, CORE-OM eta SCL-90 galdetegietan era esanguratsuan jaitsi ziren puntuazioak interbentzio taldean.	Ikerketa honek erakutsi duenez, depresioa duten pazienteetan sintoma depresiboen hobekuntza egonda ohiko zaintzei dantza eta mugimendu terapia bat gehituta.
(Jeong et al., 2005)	Dantza taldea (n = 20) eta Kontrol taldea (n= 20) Depresioa zeukaten korear neskek	45-min DMT saioak, astean 3 aldiz, 12 asteko iraupenarekin.	Sufrimendu psikologikoa: SCL-90-R –ren bitartez Hormonen neurketa: plasma serotonina eta dopamina	Sintoma psikologiko negatiboek behera egin zuten dantza taldean eta plasma serotoninaren kontzentrazioa igo/ dopamina jaitsi.	DMTak erlaxazio efektuak ditu, nerbio sistema sinpatikoa egonkortzen du eta onuragarria izan daiteke depresio arinaren sintomak arintzeko.
(Kalyani et al., 2019)	Dantza taldea (n = 17) Kontrol taldea (n = 16). Parkinson gaixotasuna duten pertsonak	Klase ordu bat, astean bitan, 12 asteko iraupenarekin.	(Hospital Anxiety and Depression Scale, MDS-UPDRS-I)	Taldean pre eta post neurketek erakusten dute antsietatea eta depresioa nabarmen hobetu zirela interbentzioa eta gero.	Dantza klaseek onura nabarmenak dituzte sintoma psikologikoentzako.
(López-Rodríguez et al., 2017)	95 unibertsitateko ikasle. Biodantza taldea (n=42) eta kontrol taldea (n=53)	90 minutu astean hilabete batez. 4 saio. 10 minutu beroketa, 40 minutu mugimendu aktiboagoak eta 10 minutu azken ospakizun erronda.	Center for Epidemiologic Studies Depression Scale (CES-D).	Pre/post analisiaren arabera biodantzak efektu nabarmenak ditu depresioan .	Emaitzek erakusten dute biodantza interbentzio labur bat depresio mailen jaitsierarekin lotuta dagoela unibertsitate ikasleetan ikasturtean zehar.

Artikula	Parte hartzaileak	Programa	Neurketa tresna	Emaitzak	Ondorioak
(Murrock & Graor, 2016)	40 partehartzaile. Bataz besteko adina 63 urte, %92a emakumeak eta %75a afrikar amerikarrak.	Astean bi aldiz 12 astez. Guztira 24 saio. 45 minutuko iraupena (5 min beroketa, 30 min dantza eta 10 min lasaitasunera itzulera).	Center for Epidemiologic Studies Depression Scale (CES-D)	Dantza interbentzioak depresioa nabarmen murriztu zuen.	Aurkikuntzek dantza depresiorako tratamendu konplementario edo laguntza bezala proposatzen dute.
